

EBAZPENA, 2023ko abenduaren 14koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako Zuzendariarena, 2023ko azaroaren 24an Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako aholku batzordeak onartutako kontratatutako irakasleak eta ikerlariak eta, unibertsitate pribatuetako irakasle doktoreak ebaluatzeko eta akreditatzeko Protokoloa jakinarazten duena.

I.– Zioen azalpena eta lege-esparrua

1. – Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak (aurrerantzean, EUSL), II. kapituluko 3. eta 4. ataletan lege horrek arautzen dituen irakasle-figurak kontratatu ahal izateko beren jardueraren aurretiazko ebaluazioa agintzen du. EUSLk kanpo-ebaluazioa egiteko eta ebaluazio-txostenak egiteko eginkizunak Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari (aurrerantzean, Unibasq edo Agentzia) esleitzen dizkio. Unibasqek gobernu- eta unibertsitate-agintarizetatik berezita betetzen du ebaluazio- eta akreditazio-funtzio hori, beti ere prozedura eta irizpide objektibo, publiko eta nazioartean homologagarrien arabera, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legean ezarritakoaren arabera (aurrerantzean, Unibasqen 13/2012 Legea). Agentzia Goi Mailako Hezkuntzaren Kalitaterako Europako Elkarteko (ENQA) kidea da, eta Kalitate Agentzien Europako Erregistroan (EQAR) inskribatuta dago; beraz, Unibertsitate Sistemaren martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren (aurrerantzean, LOSU) 5. artikuluan horri buruz ezarritako baldintza betetzen du agentziak.

2. – EUSLn jasotakoaren arabera, Euskal Unibertsitate Sistemako (EUSko) irakasleak ebaluatzeko eta egiaztatze prozedura azaroaren 13ko 192/2007 Dekretuak garatzen du, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ebaluazioa eta egiaztapena lortzeko prozedura arautzen duenak (EHAA, 2007-11-23). Dekretu hori abenduaren 28ko 350/2010 Dekretuak aldatu zuen (EHAA, 2011-01-24). Bestalde, prozedura hori ebaluatzeko irizpideak Agentziak zehazten ditu, Unibasqen 13/2012 Legearen 9.2b artikuluan xedatutakoaren arabera eta LOSUaren 5. eta 85. artikuluetan agindutakoaren arabera.

3.- Abenduaren 23ko 5/2010 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2011. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak (EHAA, 2010-12-30), bederatzigarren xedapen gehigarriaren hirugarren atalean ezartzen zuen EUSLren 14. artikuluan zehaztutako irakasle eta ikertzaile kontratatuen kategoriak, agregatua, atxikia, elkartua, laguntzailea eta laguntzailea, ondorio guztietarako abenduaren 21eko 6/2001 Unibertsitatei buruzko Lege Organikoan (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatua) araututako unibertsitate-esparruko berariazko lan-kontratazioko modalitateekin parekatuta daudela. LOSU indarrean jarri ondoren, eta 85.2 artikuluan adierazitakoaren arabera araudi autonomikorik eguneratu ez bada ere, beharrezkoa da, EUSLren arabera eta LOSUaren hirugarren eta laugarren xedapen iragankorretatik ondorioztatzen denez, agentziaren funtzionamendu instituzionala eta ematen duen irakasleak egiaztatze zerbitzuaren jarraipena bermatzea.

4.- LOSU indarrean sartzean, desagertu egiten da EUSLn jasotako irakasle atxikientzako akreditazio-betebeharra; izan ere, lege organiko horren 78. artikulua araututako irakasle laguntzaile doktoreen figurarako ere desagertzen/kentzen da, eta, beraz, ezabatze hori autonomia-erkidegoko figura baliokideei buruz aplikagarria da, hain zuzen ere EUSen irakasle atxikiari. Gainerako figurei aplikatu dakizkiekeen betekizunei dagokienez, Protokolo hau LOSUren hirugarren, laugarren eta bosgarren xedapen iragankorretan zehaztutako iragankortasunari atxikitzen zaio.

II.– Protokolo honen xedea

1.– Agentziaren irakasle eta ikertzaileak akreditatzeko programak, alde batetik, bere gain hartzen du irakasle kontratatutako eta ikertzaileak hartzeko, irakasle- eta ikerlari-lana ebaluatzea. Bestalde, unibertsitate ez-publikoei dagokienez, Agentziaren ebaluazioa irakaslea kontratatu aurretiazkoa izan daiteke, edo, bestela, lehendik kontratatuta dauden eta irakasle- edo ikertzaile-lanetan dabilzan irakasleena.

2.– Agentziak egindako ebaluazioa sarrera-prozesuaren lehen fasea besterik ez da, ondoren unibertsitateen berezko hautaketa- eta kontratazio-prozesua baitator. Unibertsitateek eurek zehaztu behar dituzte irakasleak eta ikerlariak kontratatze prozesuan aplikatu beharreko baldintzak, irizpideak eta prozedurak. Unibasq-ek garatutako lehen



fasearen ebaluazio prozesua, agentziaren Etika eta Berme kodeak zuzendua izan beharko da, bere web-orrian (www.unibasq.eus) argitaratuta.

3.- Protokolo hau Unibasqen Aholku Batzordeak onartu zuen 2023ko azaroaren 24an, eta V. atalean ezartzen ditu EUSen indarrean dauden eta egokiak diren irakasle-figurak egiaztatzeko ebaluazio-irizpideak, Unibasqen 13/2012 Legearen 9.2b artikuluan xedatutakoaren arabera.

III.– Ebaluazio-organoak

1.– Agentziak ebaluazio batzordeen bidez ebaluatuko ditu eskaerak. Organo horietako kideek Etika eta Eskubide Kodearen arabera jardun beharko dute.

2.– Konfidentziala da ebaluazio-prozesuan eskuratzen den informazio guztia.

3.– Ebaluazio-batzordeak.

a) Ebaluazio-batzordeak organo zientifiko-teknikoak dira, eta horien bidez garatzen ditu agentziak ebaluazio-prozesuak, Unibasqi buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legearen 10. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

b) Batzordeen osaerari eta funtzionamenduari dagokienez, Protokolo honetan zehaztuta ez dagoenean, Unibasqen Estatutuetan bildutako araudia ezarriko da.

c) Agentziako zuzendariak izendatu behar ditu, batzorde bakoitzeko kideen artetik, haietako buruak eta idazkariak, zeinek kargu horiei dagozkien lanak egin behar dituzten organo horietan.

d) Ebaluazio-batzordeak jakintza-esparru eta arloka antolatuko dira. Aurreko deialdietan jaso den eskaera-kopurua kontuan izanda, ebaluazio-batzorde hauek osatuko dira:

- Zientzia Esperimentalak.
- Medikuntza eta Osasun Zientziak.
- Juridikoak eta Ekonomia Zientziak
- Gizarte Zientzia
- Irakaskuntza Teknikoak.
- Giza Zientziak.

e) Prozesu bakoitzaren berariazko egoeren arabera, ebaluazio-batzordeen kopurua aldatzeko aukera dago.

f) Ebaluazio-batzorde bakoitzak bost eta hamar kide artean izango ditu, aurreko deialdietan batzorde bakoitzak ebaluatu behar izan duen eskaera-bolumenaren arabera. Salbuespen gisa, ebaluazio-batzordeak agentziari espezialisten aholkularitza eskatu ahal dio, egoki baderitzo.

g) Batzordeko kideen izendapena, hiru urtekoa izango dena, baliozkoa izango da agentziaren zuzendaritzak izendapenaren ebazpena sinatzen duen egunetik aurrera. Agentziaren webgunean argitaratu behar dira batzordeko kideen izenak.

h) Ebaluazioetan batzordeek arreta berezia eskainiko diete gerta litezkeen genero alborapenei, eta Agentziaren aldetik batzordeek alborapen horiei buruzko informazioa eta prestakuntza jasoko dute.

IV.– Prozesuaren deskribapena.

1.– Deialdiaren hasiera eta amaiera datak deialdian bertan finkatuko dira, agentziako Gobernu Kontseiluak onartuko du eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Urtero egin behar da ohiko deialdia, behar diren ohiz kanpoko deialdien kalterik gabe.

2.– Deialdi bakoitzak ezarri behar ditu horretan parte hartzeko bete beharreko forma, epeak eta dokumentazioa.

3.– Eskaerak nola formalizatu.

a) Interesdunak telematikoki egin behar du eskaera, agentziaren webgunean horretarako txertatutako aplikazio informatikoa erabilita (www.unibasq.eus).

b) Eskaeran, datu hauek sartu behar dira:

- Aplikazio informatikoan eskatutako datu pertsonalak.
- Ebaluatu behar den kontratu-mota.
- Zein jakintza-arlori esleitu nahi zaion.
- Zein batzordek ebaluatu behar duen.
- Eskatzaileak aurkeztutako eta beharrezkoak diren meritu akademikoak eta profesionalak. Argitalpenen atalean gehienez hogeita hamar ekarpen sartu behar dira. Eta kongresuetan parte-hartzeen atalean gehienez hamar sartu behar dira (nabarmenenak eskatzaileak aukeratutakoak). Irakasle osoko eta ikerketa irakasleen irudien kasuan hirurogei ekarpen adierazi ahal izango dira (pertsona eskatzaileak aukeratutako nabarietak). Argitalpen eta kongresuei buruzko meritu horiek justifikatzeko orduan, erakundeen gordailuetan eskuragarri dagoen dokumentazioari buruzko erreferentziak sartu ahal izango dira.
- Eskatzailearen Curriculum Vitae (CV) oso bat. CV osoa, ohiko formatuetako batean bete (jatorrizko unibertsitatearen eredu, Eusko Jaurlaritzarena, FECYT, etabar.), ez da ebaluatuko, baina eskatzailearen ibilbidea testuinguruan jartzeko baliatuko da, eta ebaluatzaileek hura erabiltzeko aukera izango dute. Atal jakin batzuetan ekarpen-kopurua txikia denez, CV hori erabili ahal izango da interesdunaren ibilbide akademiko eta profesional osoa aztertzeko.
- Gainera, Irakasle osoen eta Ikerketa-irakasleen kasuan, eskatzaileak autotxosten bat aurkeztuko du autoebaluazio moduan, bere ibilbide akademikoaren meritu nabarmenenak jasota. Autotxosten horrek 1.000 hitzeko luzera izango du gehienez.

c) Aurkeztu beharreko ziurtagiriak eskaneatuta erantsi behar dira:

- Ebaluatzea eskatu den postua eskuratzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Adierazitako merituak akreditatzen dituzten dokumentuak. Merituak akreditatzen dituzten dokumentuak fitxategi informatikotan eta ebaluatu beharreko atalen arabera antolatu behar dira.

d) Eskaera betetzeko erabiltzen den aplikazio informatikoak lotura bat izango du Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikora. Egoitza elektronikoa honetan laburpen dokumentu bat sortuko da. Eskatzaileak laburpena behar bezala sinatu eta aurkeztu behar du Unibasqen, deialdian ezarritako epearen barruan, hurrengo bidea erabiliz:

- Bide elektronikoen bidez, erregistro telematikoa www.euskadi.net helbide elektronikoa egin ahal izango da, bide elektronikoz, Administrazio Elektronikoari buruzko 21/2012 Dekretua bigarrenez aldatzen duen 55/2020 Dekretua, apirilaren 21ekoa, kontuan izanik (2020ko apirilaren 30eko EHAA). Izapidetzeko argibideak www.unibasq.eus web orrialdean aurki daitezke.

Agentzian jasotzen den laburpen dokumentu bakoitza identifikazio-zenbaki batekin erregistratu behar da, identifikazio-zenbakia jarriz eskatzaile eta figura bakoitzeko, eta espedientea ireki behar da sarrera-data adieraziz.

e) Abenduaren 22ko 5/2011 Legearen 17. artikuluari jarraikiz (5/2011 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoari buruzko Legea aldatzeko dena), irakasleak egiaztatzeko egindako ebaluazio eskabide bakoitzaren izapidetzeagatik tasa ezarri da. Horregatik, eskabidearekin batera, tasa ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, agentziaren web-orrialdean (www.unibasq.eus) adierazitako prozedurari jarraituz.

f) Ebaluazio-eskaerak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan aurkez daitezke.

4.– Eskaerak nola egiaztatu.

a) Eskaera bakoitzean, datu hauek begiratu behar dituzte agentziako langileek:

- Eskatutako kontratu-modalitateetarako legeak aurrez ezarritako baldintzak betetzen diren.
- Dokumentazioak deialdian ezarritako baldintza formalak betetzen dituela egiaztatzea.

b) Agentziako zuzendariaren erabakiaren bitartez jakinarazi behar zaie eskatzaileei ebaluazioa eskatu den kontratu-modalitateetarako hautagai izateko lege ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenen artxibatzea.

c) Epeen barruan aurkeztutako eskariek urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66. artikuluan ezarritako eta deialdian jasotako baldintzak betetzen ez badituzte edo baldintzak, zuzengarriak direnean, justifikatzeko beharrezko dokumentazioa aurkeztu gabe geratu bada, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 artikulua agintzen duenez, interesdunari eskatu behar zaio falta diren dokumentuak ekartzeko, hamar laneguneko epean, eskaera jaso eta hurrengo egunetik hasita. Interesdunak aipatutako epean falta diren dokumentuak aurkeztu ezean, eskatzaileak atzera egin duela joko da. Agentziako zuzendariak hartu behar du erabakia, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua agintzen duenez

5.– Eskaerak nola ebaluatu.

a) Ebaluazio-batzordeak, deialdi bakoitzaren hasieran, ebaluazio-prozesuaren planifikazio orokorra egin behar du. Batzorde bakoitzak bere ebaluazio-zereginak egiteko dituen epeak zehaztu behar dira planifikazioan, interesdunak agentziaren erabakia deialdian zehaztutako gehieneko epean barruan jasotzen dutela ziurtatzeko.

b) Oro har, aurkeztutako eskaerak eskatzaileak zehaztutako jakintza-arloari eta esparruari dagokion ebaluazio-batzordeari esleitu behar zaizkio. Hala ere, eskatzaileak zehaztutako esparrua ez den beste bati esleitu ahal zaio eskaera eta, ondorioz, aurkeztutako merituak beste zientzia-eremu bati hobeto egokitzen zaizkiola irudituz gero, beste batzorde bati, interesdunari aurrez kontsulta egin eta gero. Hala ere, jakintza arlo jakin bati atxikita egon arren, izangaiaren curriculum profila horrela justifikatzen duenean, Batzordeak kontuan hartuko du aurkeztutako merezimenduen zeharkako izaera.

c) Batzorde bakoitzeko kideek bakarka eta independenteki ebaluatu behar dituzte espedienteak, aurrez ezarritako egutegian zehaztutako epe barruan.

d) Oro har, batzordeko bi kidek egin behar dute eskaera bakoitzaren hasierako ebaluazioa. Aurkeztutako merezimenduak zeharkakoak direnean, espedientea atxikitzen den jakintza-arloko berekoak ez diren beste jakintza-arlo batzuetako adituen txostenak eskatu litezke. Horretarako, bakarkako azterketa eta ebaluazioa egin ondoren, batzorde bakoitzeko buruak, espedienteen ebaluazio bateratua egiteko, kide guztien arteko batzarra egiteko eguna eta ordua ezarri behar ditu (aurrez aurrekoa edo birtuala). Batzar horrek txosten bakarra egin behar du ebaluazio-eskaera bakoitzeko, eta ebaluazio-batzordeko buruak edo idazkariak izenpetu. Idazkariak jaso behar ditu, bilerako aktan, ebaluazioaren jazoerak eta batzordeak emandako balorazio guztiak.

e) Dagokion batzordeak ebaluazioa egindakoan, zuzendariak dagokion ebazpena emango du. Ebaluazioak lotesleak dira agentziako organo guztientzat.

6.– Eskaerak nola ebatzi.

a) Eskaera bakoitzeko ebaluazio-ebazpen bat plazaratu behar da, eta ebaluazioaren aldeko edo kontrako iritzia adierazi behar ditu, eta zer kontratu-modalitateetarako egiten den. Halaber, ebaluazioa kontrakoa bada, dagokion batzordeak egindako ebaluazioaren txostenaren eskaera bete den aplikazio informatikoan egongo da eskuragarri. Unibasqeko zuzendariak baterako ebazpen bat jarriko du <https://www.euskadi.eus> iragarki-taula elektronikoan, emaitzak jakinarazteko. Ebazpen hori iragarki-taula elektronikoan argitaratzen den data ebazpenaren

jakinarazpenaren data formala izango da, xede guztietarako. Nolanahi ere, ondorengo egunetan ebazpen indibidualizatua bidaliko zaie egoitza elektronikoaren bidez.

b) Ebaluazio, akreditazio eta ziurtatze-prozesuen ebazpenak emateko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia amaitzen den egunetik hasita. Aurreko atalean adierazitako epearen barruan ebazpenik izan ezean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan aurreikusitakoak zuzentzen ditu egin beharrekoak ofizioz abiarazitako prozeduretan.

c) Hartutako erabakiak ondorioak izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetan, baita beste autonomia-erkidego batzuetako unibertsitateetan ere, agentziak erkidego horietako ebaluazio-agentzia edo -organoekin dagokion homologaziorako eta elkar onartzeko hitzarmenik izenpetu badu.

d) Kontratu-modalitate jakin baterako kontrako ebaluazioa jaso duen eskatzaileak ezin du modalitate bererako eskaera berririk egin, ebazpena jakinarazi eta sei hilabete pasa arte.

e) Eskatutako kontratu-modalitaterako aldeko ebaluazioen eragina ez da iraungitzen.

7.– Eskaeren ebazpenen aurkako errekurtsioak.

a) Agentziako ebazpenek bide administratiboa agortzen dute, eta, beraz, berraztertze errekurtsioa zuzendariari berari aurkeztu behar zaio, edo administrazioarekiko auzi-jurisdikzioari. Berraztertze errekurtsioa aurkeztean, ebaluazioa egin zuen ebaluazio-batzordeak espediente osoa berraztertu behar du. Batzordeak errekurtsioa aurkeztu duenaren alegazioak, lehen ebaluazioko txostena, eta alde bien dokumentazioa aztertu behar ditu. Azterketa- eta balorazio-lan hori egin ondoren, Ebaluazio Batzordeak txosten tekniko bat egingo du. Irakasleen eta ikertzaileen akreditazio-programaren ezaugarriak kontuan hartuta, jakintza-arlo edo -azpiarlo espezifiko bakoitzerako espezialisten aholkularitza eskatu ahal izango da komenigarria denean, berrikuspen-prozeduraren bermea ahalik eta gehien indartzeko, beti ere etengabeko hobekuntzaren printzipioari lotuta eta Agentziaren Etika eta Berme Kodearen printzipioekin bat etorritik; nolanahi ere, azken iritzi teknikoa dagokion Ebaluazio Batzordeari dagokiolarik. Agentziako zuzendariak, ebaluazio-batzordearen txostena ikusirik, berraztertze errekurtsioari erantzun egin behar dio, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio, ezartzen denetik hilabeteko epean.

8.- Metaebaluazioa

Behin deialdia amaiturik, emaitzen analisia eta metaebaluazio bat egingo dira batzordeetako batzarburuekin, emaitzak, irizpideak eta hobetzeko proposamenak aztertze, prozesua etengabe hobetzen aurrera egitearren. Ebaluatutako irakasle eta ikertzaileen artean egindako inkestean datuak jasoko ditu metaebaluazio horrek.

V.– Ebaluazio-batzordeek erabili beharreko ebaluazio-irizpideak.

1.– Ebaluazio Batzordeek modu arrazoituan ebaluatuko dituzte aurkeztutako merezimenduak, eta, besteak beste, honako alderdi hauek hartuko dituzte kontuan uneoro: jakintza-arloaren edo -eremuaren espezifiktasuna, ebaluazio-ikuspegi kualitatiboa eta kuantitatiboa, tokiko garrantzia eta hizkuntza-aniztasuna.

2.– Agentziaren funtzionamendua zuzentzen duten gardentasun-printzipioei jarraiki, ahalik eta publizitate gehiena egin behar da hauen inguruan: ebaluazio-irizpideak, horien kuantifikazio osoa, ebaluazio-irizpide horiek aplikatzeko printzipio eta joerak, eta ebaluazio positiboa lortzeko bete behar diren baldintzak. Horiek guztiak agentziaren webgunean argitaratu behar dira (www.unibasq.eus).

3.- Ondorengo irudiei dagozkien irizpideak garatzen dira:

- Irakasle osoa.
- Irakasle agregatua.
- Ikerketa irakaslea.

- Doktore tituludun ikertzailea.
- Unibertsitate pribatuko irakasle doktorea.

Figura guztiei aplikatzekoak diren kontsiderazio orokorrak.

1. Ebaluazioan ikuspegi kualitatiboa eta kuantitatiboa, bi ikuspegiak aplikagarriak direla kontuan izanik, argitalpenen ebaluazioan, ikerketa-seiurtekoekin edo Ikertramoekin parekatzeko erreferentzia moduan ekarpenen kopurua eta horien kalitatea hartuko da kontuan eta ez garatutako ikerkuntza-jardueraren urte kopurua.
2. Kongresu edo gisa bereko bilera zientifikoetara (sinposioak, mintegiak, jardunaldiak, etab.) bertaratzea ez da meritu gisa kontuan hartuko, baldin eta ez bada nolabaiteko ekarpenen bat egiten (txostena, komunikazioa, posterra, etab.)
3. Kongresuetako akta eta laburpenak ez dira argitalpenen atalean bilduko, kongresuetako parte-hartzei buruzko atalean baizik.
4. ECTS kredituak irakasle bakoitzak eman behar dituenak dira, dagokionean hurrengo baliokidetasuna erabiliko da, 1ECTS= 10 ordu, ordu hauek arduradun den saileko irakaskuntzaren plangintzan esleitutakoak izanik.
5. Protokolo honen arabera, Irakaskuntza jarduera lizentziaturetan, diplomaturetan eta ingeniaritzan, graduatan bezala ebaluatuko da, irakaskuntza jarduera doktoretza-ikastaroetan berriz masterretan bezala ebaluatuko da. Karrera amaierako proiektuen zuzendaritza, gradu edo master-amaierako lanen zuzendaritzarekin parekatuko da, dagokionaren arabera.
6. Epaimahai akademikoetan parte hartu izana ez da balioetsiko (esaterako, Doktorego Tesien, GrALen, MALen edo antzekoen kasuan); lan horien zuzendaritza baino ez da balioetsiko.
7. Gehienezko puntuazioa lortzeko proposatzen diren erreferentziak ez dituzte kanpo uzten puntuazio horretara heltzeko ordezkoko modurik. Proposatutako erreferentziak laguntzeko asmoarekin azaltzen dira, gehienetan, erreferentzia ohikoenak izateagatik, ebaluazioan ikuspegi kualitatiboa eta kuantitatiboa, bi ikuspegiak aplikagarriak direla kontuan izanik
8. Oro har entziklopedia espezializatu, hiztegi tematiko eta antzekoetako sarrerek ez dira liburuetako kapitulutzat hartuko, bestelako argitalpentzat baizik. Hala ere, kasu bereziren batean, batzordeek sarrera horiek liburu baten kapitulu gisa balioetsi ahalko ditu.
9. Egonaldien kasuan, garrantzi akademikoa duten zentroetan egindako egonaldiak hartuko dira aintzat eta balioetsiko dira, baldin eta zentro horiek aprobetxamenduarekin edo errendimendu akademikoarekin lotu badaitezke, bai baterako argitalpenetan, bai baterako ikerketa-proiektuetan edo antzekoetan.
10. Ikerketa-iharduerari eta ezagutzaren transferentziari dagokienez, merituen zeharkako izaera ere arrazoituz ebaluatuko da, EUSko unibertsitate- eta zientzia-politikan ezartzen den diziplinartekotasuna — multidisciplinary, interdisciplinary eta transdisciplinarity zentzuetan— aitortzeko eta sustatzeko politikarekin bat eginez eta hainbat erakundek —besteak beste, Europako Batzordeak eta Europako Ikerketa Kontseiluak (European Research Council, ERC) —gaiari buruz ezartzen ari diren jarraibideekin ere bat eginez. Oro har, irizpide hori hartuko da kontuan erreferentzia gisa ezartzen den ikerkuntzako seiurtekoekin edo Ikertramoekin ezartzen den parekatzeari dagokionez.

IRAKASLE OSOEN IRAKASKUNTZA ETA IKERKUNTZA-JARDUERA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Hauk dira egiaztapena lortzeko ezinbesteko baldintzak:

- Gutxienez, 80 puntu lortzea; horrez gain, 1. atalean 50 puntu eskuratzea, eta, 2. atalean, 25 puntu.
- Ikerkuntza-jarduerako hiru aldirekin pareka daitezkeen merezimenduak egiaztatzea; aldi horiek irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan egindako zehaztapenen arabera nahiz horri egindako aldaketen arabera aitortuko dira. Baldintza hori ez da nahikoa izango, baina bai ezinbestekoa aldeko egiaztapena lortzeko.
- Gutxienez, bi doktorego-tesi zuzenduta izatea; gutxienez, bi ikerkuntza-proiekturen ikertzaile nagusi izatea; edo, sei hilabetez, atzerriko unibertsitate batean doktoratu ondoko egonaldia egina izatea. Baldintza hori ez da nahikoa izango, baina bai ezinbestekoa aldeko egiaztapena lortzeko
- Lagungarri bezala, meritua estandarizatuagoak dauden atal haietan, gehienezko puntuazioa lortzeko erreferentziak emango dira. Nabari denez, ez dira modu bakarrak, baina bai beharbada ohikoenak. Guzti hau batzordearen ekarpen bakoitzaren balioespenari kalterik egin gabe.

ATALAK	ATAL BAKOITZETIK LOR DAITEKEEN GEHIENEZKO PUNTUAZIOA	EGIAZTAPENA LORTZEKO PUNTUAZIO MINIMOA
1.- Ikerkuntza jarduera eta ezagutza zabaltea	70 puntu	50 puntu
2.- Irakaskuntza jarduera eta lan esperientzia	35 puntu	25 puntu
3.- Kudeaketa jarduerak	5 puntu	
GUZTIRA		80 puntu

1. IKERKUNTZA-JARDUERA ETA EZAGUTZA ZABALTZEA (gehienez ere, 70 puntu)

1.1. Argitalpenak (gehienez, 50 puntu)

Gehienezkoa, erreferentzia gisa, 4 ikerketa-seiurtekorekin, 4 Ikertramorekin edo ekarpen baliokiderekin lortuko da. Ekarpentzientifikoen kalitatearen balorazio orokorra lehenetsiko da balorazio kuantitatibo hutsaren aurrean, ebaluazioan ikuspegi kualitatiboa eta kuantitatiboa, bi ikuspegiak aplikagarriak direla kontuan izanik. Eskatzailearen lidergo argia egiaztatatu beharko da produkzio zientifikoan. Ebaluazio Batzordeak erabakiko du argitalpenak behar bezain garrantzitsuak diren eta lidergoa erakusten duten, jakintza-arlo bakoitzerako irizpide estandarizatuei jarraituz.

1.2. Ikerkuntza eta ezagutza zabaltzeko taldeko jarduerak: proiektuak, kontratuak, eta ikerkuntza-taldeak eta sareak (gehienez ere, 10 puntu)

Eskatzaileak lidergo argia egiaztatatu behar du ikertzeko eta ezagutza eskualdatzeko jarduera kolektiboan, batez ere taldeen lidergoari era ikerketa-proiektu lehiakorrei dagokienez.

Kontuan hartuko dira bereziki eskatzailearen parte-hartze mota eta erantzukizun maila hurrengo programetan: Europar Batasuneko programa lehiakorren barneko ikerketa-proiektuetan, beste nazioarteko erakunde batzuetakoetan (NSF, Fullbright, AEB, Japonia, etabar), Plan Nazionalekoetan, Autonomia-Erkidegokoetan eta kanpoko ebaluazioa behar duten (kanpo ebaluazio hau bereziki Estatuko Ikerketa Agentzia edo antzeko garrantzi bereziko nazio edo nazioarteko erakunde publiko edo pribatuek egin badute).

Area klinikoaren kasuan gainera, deialdi lehiakorretan ikerketa-jarduerak klinikoak baliotzeko dira, osasun-autoritate eskudunek egiaztatuta.

Gehienezko puntuazioa garratzi handiko ikerketa-proiektuetan egiaztatutako 9 urteko lidergoarekin lortuko da, Europar Batasuneko, bertako edo nazioarteko plangintzetako programa lehiakorren barneko ezagutza arloa aintzat hartuta.

Eskatzailea proiektuen IN ez denean, 2 proiektu aurkeztuko dira gehienez.

Hauek baliotzeko dira:

- Lehiaketa-deialdietan lortutako ikerkuntza-proiektuak (deialdi-mota hartuko da kontuan: unibertsitatekoa, erkidegokoa, naziokoa, nazioartekoa).
- Administrazio Publikoarekin edo enpresekin egindako ikerkuntza-kontratuak (horiek zientziaren arloan zer garrantzi duten eta horien zenbatekoa hartuko dira aintzat).
- Ikerkuntza-talde eta -sareetan izandako parte-hartze formalizatuak (kontuan izango da deialdi mota etaldeak edo sareak zientziaren arloan duen garrantzia).

Balioespenean kontuan hartuko da hautagaiaren parte-hartze mota: ikertzaile nagusia, proiektuen edo azpi-proiektuen koordinatzailea, ikertzailea, bekaduna, etabar.

1.3. Kongresuak (gehienez ere, 5 puntu)

Nazioarteko kongresu zientifikoak hartuko dira kontuan, (eta salbuespen gisa garrantzi bereziko bertako kongresuak, ezagutza arloaren arabera), pareek egindako berraztertzea barne, antzinatearekin eta aldizkakotasunarekin bere ezagutza eremuan erreferentzia bihurtzeko. Kongresu hauei dagokienez hurrengoak baliotzeko dira:

- Osoko hitzaldiak, hitzaldi nagusiak
- Hitzaldi gonbidatuak

- Ahozko komunikazioak eta posterrak
- Kongresu-akten laburpen hedatuak (*proceedings*).
- Kongresuetan beste aurkezpen batzuk.

Hitzaldi eta mintegiak baloratzeko orduan, aldizkakotasuna, entitate edo batzorde antolatzailearen ospea, eta jarduera jakitera eman den ala ez kontuan hartuko dira.

Erreferentzia gisa esan beharra dago nazioarteko garrantzia duten 10 komunikazioarekin gehienezko puntuazioa lortuko dela, gutxienez horietako 2 osoko hitzaldia, hitzaldi nagusiak izanik (salbuespen gisa, garrantziko nazionalak ere kontuan hartuko dira, ezagutza arloaren arabera). Ebaluazio-batzordeak ezagutza arloen estandarren arabera ekarpen bakoitzaren garrantzia erabakiko du.

Kongresuetako hitzaldi gonbidatuak edo hitzaldi nagusiak balioetsiko dira, nazioartekoak, bereziki.

1.4. Doktoretza-tesien zuzendaritza (gehienez ere, 15 puntu)

Gehienezkoa lortuko da nazioarteko aipamena, gehienezko kalifikazioa eta aparteko saria lortu duten 5 Doktorego Tesiren zuzendaritzarekin edo zuzendarikidetzarekin (gehienez, bi zuzendari).

Tesiak balioesteko, tesien kalifikazioa, sari berezia lortu izana eta nazioarteko tesizat hartu izana hartuko da kontuan.

1.5. Ikerkuntzako beste merezimendu batzuk (gehienez ere, 5 puntu)

Euskal Unibertsitate Sistemaz kanpoko unibertsitateetan edo ikerkuntza-zentroetan irakasle bisitari egon izana.

Doktoratu ondoko bekak.

Ikerkuntza-jardueragatiko sariak.

Dibulgazio zientifikoko jarduera (esaterako, publiko orokorrari irekitako mintegietan, zientziaren asteetan eta antzekoetan parte hartzea).

Inpaktu sozial handiko zabalkunde- eta dibulgazio-jarduerak.

Atzerriko sistemetak ikerketaren egiaztapena.

2. IRAKASKUNTZA-JARDUERA ETA LAN-ESPERIENTZIA (gehienez ere, 35 puntu)

2.1. Irakaskuntza-jarduera (gehienez ere, 35 puntu)

Baliokidetasuna ECTS Kreditu 1= esleitutako 10 irakaskuntza ordu izango da

3 ataletan banatzen da:

- i) Gradu/Master/Doktoregoan emandako irakaskuntza, gehienez 15 puntu.
- ii) GrAL eta MAL-en zuzendaritza, gehienez 10 puntu.
- iii) Irakaskuntza kalitatearen egiaztapena (jarduerako eta irakaskuntzan prestakuntzako ebaluazio positiboak), gehienez 10 puntu.

Gehienezkoa i)an emandako 150 krediturekin lortuko da, beti ere hauetako %10a Master edo Doktoretzan eman badira.

Gehienezkoa ij)-an 20 GrAL edo 10 MAL-en zuzendaritzarekin lortuko da.

iii) atalean gehienezkoa lortuko da gutxienez 5 urtean irakaslearen jarduera bikaina izan dela ebaluatuz gero (erreferentzia, Docentia programa).

- Unibertsitateko ikaskuntza-esperientzia, erakundearen aldeko balioespenarekin.
- Eskatzaileak bere irakaskuntza-jardueraren kalitateari buruz aurkeztutako ebaluazioak.
- Graduondoko unibertsitate-irakaskuntzan izandako esperientzia (prestakuntza-ikastaro espezializatuak, masterrak eta doktoretzak).
- Tesinak, Ikasketa Aurreratuen Diploma, karrera-amaierako proiektuak, gradu-amaierako lanak eta masterrak zuzendu izana.
- Titulazio ofizialetako irakasgaiak edo moduluak koordinatu izana.
- Unibertsitate-orientazio jardunaldietan eta antzekoetan parte hartu izana.
- ISBNdun irakaskuntzako argitalpenak, ospe handiko argitaletxeetan argitaratuak.
- Irakaskuntza berritzeko proiektuak eta Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitzeko proiektuak koordinatu edo horietan parte hartu izana.
- Euskaraz egin diren atal honetako irakaskuntza-jarduerak % 20 gehiago lortuko dute balioespenean.
- Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ez-ofizialetan egiten diren atal honetako irakaskuntza-jarduerak % 10 gehiago lortuko dute balioespenean.

2.2. Lan-esperientzia (gehienez ere, 18 puntu)

- Arloarekin lotutako esperientzia profesionala, beste atal batzuetan ez balioestekoa, lizentzia fiskal edo lan-kontratu bidez egiaztatua. Ebaluazio-batzordeak arlo horretako jarduera espezifikoa den aztertuko du, puntuazioan aintzat hartzeko
- Arlo klinikoetan, jarduera asistentziala hartuko da kontuan bereziki, irudi honekiko antzinatasun eta kompetentzien irizpidekin bat datorrela.
- Ekintzailtza-jardueretan parte hartzea, unibertsitateko spin-off edo start-up enpresen sorkuntzan adibidez.

3. KUDEAKETA-JARDUERAK (gehienez ere, 5 puntu)

Gehienezko puntuazioa unibertsitateko estatutuetan jasotako unibertsitateko pertsona bakarrek kudeaketa karguetan 4 urtetan zehar jardun izanarekin lortuko da (gutxienez, saileko zuzendari bezala). Gehienezko puntuazio hau Autonomi-erkidegoko administrazioetan, Estatuko Administrazio Orokorrean edo Europar Batasunean heziketa, zientzia edo teknologia arloan 4 urtetan zehar pertsona bakarrek karguetan jardun izanarekin ere lortuko da.

Unibertsitateetan pertsona bakarrek kudeaketa-karguak betetzea, unibertsitateetako erakunde-batzordeetako parte-hartzea, Administrazio Publikoaren zerbitzuak eta ikerkuntza-proiektuen eta -jardueren kudeaketa balioetsiko dira (esaterako, konplexutasun administratibo bereziko proiektuak kudeatzea, ospe handiko aldizkarietan argitalpen- eta berrikuspen-lanak egitea eta izen handiko batzorde zientifiko edo akademikoetan parte hartzea).

IRAKASLE AGREGATUEN IRAKASKUNTZA ETA IKERKUNTZA JARDUERA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Egiaztapena lortzeko beharrezkoa da:

- Gutxienez, 65 puntu lortzea; horrez gain, 2. Atalean 35 puntu eskuratzea, eta, 3 atalean, 10 puntu.
- Ikerkuntza-jarduerako aldi batekin parekin daitekeen merezimenduak egiaztatzea; aldi hori irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan egindako zehaztapenen arabera nahiz horri egindako aldaketen arabera aitortuko da. Baldintza hori ez da nahikoa izango, baina bai ezinbestekoa aldeko egiaztapena lortzeko.
- Lagungarri bezala, merituek estandarizatuagoak dauden atal haietan, gehieneko puntuazioa lortzeko erreferentziak emango dira. Nabari denez, ez dira modu bakarrak, baina bai beharbada ohikoenak. Guzti hau batzordearen ekarpen bakoitzaren balioespenari kalterik egin gabe.

ATALAK	ATAL BAKOITZETIK LOR DAITEKEEN GEHIENEZKO PUNTUAZIOA	EGIAZTAPENA LORTZEKO PUNTUAZIO MINIMOA
1.- Ikasketa eta ikerkuntza prestakuntza	10 puntu	
2.- Ikerkuntza- jarduera eta ezagutza zabaltzea	65 puntu	35 puntu
3.- Irakaskuntza jarduera eta lan- esperientzia	30 puntu	10 puntu
4.- Kudeaketa-jarduerak	5 puntu	
GUZTIRA		65 puntu

1. IKASKETA ETA IKERKUNTZA PRESTAKUNTZA (gehienez ere, 10 puntu)

1.1. Unibertsitateko ikasketa-prestakuntza (gehienez ere, 10 puntu)

Atal honetan doktorego-tesiaren kalitate adierazleak, beste titulazio ofizial eta ez ofizial batzuk, doktoratu aurreko sariak eta doktorego-tesiaren aparteko saria, hizkuntzen ezaguera eta dagokion ezagutza eremuko garrantziko espezializazio ikastaroak balioetsiko dira.

Gehienezkoa era honetan lortuko da:

- i) Doktorego-tesia nazioartekoa edo euskaraz bada, gehienezko kalifikazioarekin eta aparteko sariarekin, eta horretaz gain,
- ii) hizkuntza ez ofizial batean maila altua egiaztatzea (B2).

- Doktorego-tesia: sari berezia lortzea eta nazioarteko tesizat edo Industria Doktoregoa hartzea soilik izango dira kontuan. Euskaraz idatzitako eta aurkeztutako tesiak nazioarteko tesien maila berean balioetsiko dira, betiere gehienezko kalifikazioa lortzen badute.
- Masterrak edo sei hilabetetik gorako graduondoko ikastaro espezifikoak
- Unibertsitateko beste titulazio batzuk.
- Bere ezagutza-arloko irakasgai espezifiko ez diren hizkuntzak jakitea egiaztatu izana; horien artean sartuko litzateke euskara jakitea. Egiaztatutako maila ere kontuan hartuko da.

1.2. Bekak, kontratuak eta ikerkuntza-egonaldiak (gehienez ere, 10 puntu)

Europako, estatuko, autonomietako, unibertsitateko edo beste erakunde batzuetako programetan, lehiakorrek diren deialdietan, lortutako doktoratu aurreko eta doktoratu ondoko beka, diru-laguntzak eta poltsak hartuko dira kontuan.

Medikuntza arloan MIR-a ikerketa kontratu bezala balioetsiko da, baita Euskal Herritik kanpo dauden ospitaletan egonaldiak ere.

Gehienezkoa lortzeko 4 urtetan zehar doktoratu aurreko eta doktoratu ondoko beka/kontratuak izanik (urte bat behintzat doktoratu ondokoa) eta honetaz gain ikasturte baten buruan nazioarteko egonaldia egin bada.

- Doktoratu aurreko eta doktoratu ondoko beka eta kontratuak
- Doktoratu aurretik eta doktoratu ondoren, Euskal Unibertsitate Sistemaz kanpoko unibertsitate-zentroetan edo ikerkuntza-zentroetan egindako egonaldiak.
- Euskal Unibertsitate Sistemaz kanpoko unibertsitateetan edo ikerkuntza-zentroetan irakasle bisitari edo ikertzaile gisa egindako egonaldiak.

2. IKERKUNTZA-JARDUERA ETA EZAGUTZA ZABALTZEA (gehienez 65 puntu, gutxienez 35 puntu)

2.1. Argitalpenak (gehienez ere, 55 puntu)

Gehienezkoa lortuko da 2 ikerketa seiurtekorekin, 2 Ikertramorekin edo 10 ekarpen baliokiderekin. Ekarpentzientifikoaren kalitatearen balorazio orokorra lehenetsiko da balorazio kuantitatibo hutsaren aurrean. Eskatzailearen lidergo argia egiaztatu beharko da produkzio zientifikoan. Batzordeak erabakiko du ezagutza eremu bakoitzean estandarizatutako irizpideak kontuan hartuz ekarpenek garrantzi nahikoa duten.

Ikerketa-seiurteko batekin, Ikertramo batekin edo pareka daitekeen 5 ekarpen egiaztatuz gero, gutxienez 30 puntu emango dira. Ekarpene zientifikoen kalitatearen balorazio orokorra lehenetsiko da balorazio kuantitatibo hutsaren aurrean. Eskatzailearen lidergo argia egiaztatu beharko da produkzio zientifikoan. Batzordeak erabakiko du ezagutza eremu bakoitzean estandarizatutako irizpideak kontuan hartuz ekarpenak parekatzea posiblea den.

2.2. Ikerkuntzako eta ezagutza zabaltzeko taldeko jarduerak: proiektuak, kontratuak, eta ikerkuntza-taldeak eta sareak (gehienez ere, 10 puntu)

Kontuan hartuko dira bereziki eskatzailearen parte-hartze mota eta erantzukizun maila hurrengo programetan: Europar Batasuneko programa lehiakorren barneko ikerketa-proiektuetan, beste nazioarteko erakunde batzuetakoetan, (NSF, Fullbright, AEB, Japonia, etabar.), Plan Nazionalekoetan, Autonomia-Erkidegokoetan eta kanpoko ebaluazioa behar duten (kanpo ebaluazio hau bereziki Estatuko Ikerketa Agentzia edo antzeko garrantzi bereziko nazio edo nazioarteko erakunde publiko edo pribatuek egin badute).

Area klinikoaren kasuan gainera, deialdi lehiakorretan ikerketa-jarduerak klinikoak balioetsiko dira, osasun-autoritate eskudunek egiaztatuta.

Gehienezkoa lortzeko 4 urtez Europar Batasuneko proiektu lehiakorren barneko ikerketa-proiektuetan, bertako edo nazioarteko plangintzetan parte hartu izana egiaztatu beharko da, eta, horrez gain, gutxienez urtebetez, ikerketa-proiektu lehiakor batean ikertzaile nagusi gisa jardun izana.

Hauek balioetsiko dira:

- Lehiaketa-deialdietan lortutako ikerkuntza-proiektuak (deialdi-mota hartuko da kontuan: unibertsitatekoa, erkidegokoa, naziokoa, nazioartekoa).
- Administrazio Publikoarekin edo enpresekin egindako ikerkuntza-kontratuak (horiek zientziaren arloan zer garrantzi duten eta horien zenbatekoa hartuko dira aintzat)
- Ikerkuntza-talde eta -sareetan izandako parte-hartze formalizatuak (kontuan izango da deialdi mota eta taldeak edo sareak zientziaren arloan duen garrantzia).

Balioespenean kontuan hartuko da hautagaiaren parte-hartze mota: ikertzaile nagusia, proiektuen edo azpiproiektuen koordinatzailea, ikertzailea, bekaduna, etab.

Zientzia-dibulgazioko jarduerak ere balioetsiko dira (esaterako, publiko orokorrari irekitako mintegietan, zientziaren asteetan eta antzekoetan parte hartzea).

2.3. Kongresuak (gehienez ere, 5 puntu)

Nazioarteko kongresu zientifikoak hartuko dira kontuan, (eta salbuespen gisa garrantzi bereziko bertako kongresuak, ezagutza arloaren arabera), pareek egindako berraztertzea barru, antzinatearekin eta aldizkakotasunarekin bere ezagutza eremuan erreferentzia bihurtzeko. Kongresu hauei dagokienez hurrengoak balioetsiko dira:

- Osoko hitzaldiak.
- Hitzaldi gonbidatuak.
- Ahozko komunikazioak eta posterrak.
- Kongresu-akten laburpen hedatuak (*proceedings*).
- Kongresuetan beste aurkezpen batzuk.

Hitzaldi eta mintegiak baloratzeko orduan, aldizkakotasuna, entitate edo batzorde antolatzailearen ospea, eta jarduerak jakitera eman den ala ez kontuan hartuko dira.

Nazioarteko 5 kongresutan parte hartuz gehienezko puntuazioa lortuko da, gutxienez horietako 1 hitzaldi gonbidatua izanik (salbuespen gisa, garrantziko nazionalak ere kontuan hartuko dira, ezagutza arloaren arabera). Aurrekoaren ordean, nazioarteko 10 kongresutan parte hartuz ere, gehienezko puntuazioa lortzeko aukera egongo da. Ebaluazio-batzordeak ezagutza arloen estandarren arabera ekarpen bakoitzaren garrantzia erabakiko du.

Kongresuetako hitzaldi gonbidatuak, osoko hitzaldiak, ahozko komunikazioak edo posterrak balioetsiko dira, nazioartekoak, bereziki.

2.4. Doktoretza-tesien zuzendaritza (gehienez ere, 10 puntu)

Gehienezkoa lortuko da nazioarteko aipamena, gehienezko kalifikazioa eta aparteko saria lortu duten 2 Doktorego Tesiren zuzendaritzarekin edo zuzendarikidetzarekin (gehienez, bi zuzendari).

Tesiak balioesteko, tesien kalifikazioa, sari berezia lortu izana eta nazioarteko tesizat hartu izana hartuko da kontuan.

3. IRAKASKUNTZA JARDUERA ETA LAN ESPERIENZIA (gehienez ere, 30 puntu)

3.1. Irakaskuntza-jarduera (gehienez ere, 30 puntu)

Baliokidetasuna ECTS 1 Kreditu = esleitutako 10 irakaskuntza ordu izango da

3 ataletan banatzen da:

- i) Gradu/Master/Doktoregoan emandako irakaskuntza, gehienez 15 puntu.
- ii) GrAL eta MAL-en zuzendaritza, gehienez 5 puntu.
- iii) Irakaskuntzaren kalitatea egiaztatzea (jarduerako eta irakaskuntzan prestakuntzako ebaluazio positiboak), gehienez 10 puntu.

Gehienezkoa i)-an emandako eta egiaztatutako 50 krediturekin lortuko da.

Gehienezkoa ii)-an 10 GrAL edo 5 MAL-en zuzendaritzarekin lortuko da.

Gehienezkoa iii)-an bost urtetako irakaskuntza jardueraren bikaina ebaluazioarekin (erreferentzia, Docentia programa izanik) lortuko da. Honen faltan, ikasleen asetze inkestak (betiere, inkesta hauek gutxienez emandako kredituen %50ari badagozkio eta batzbestekoa 5etatik 3,5 (edo 10etatik 7) bada) aurkeztuz ere lortu daiteke. Aurrekoaz gain, irakaskuntza berrikuntzan prestakuntza jaso behar izan da eta honek era zuzenean eta egiaztatuan nolabaiteko eragina emandako irakaskuntzan izan behar izan du.

- Unibertsitateko ikaskuntza-esperientzia, erakundearen aldeko balioespenarekin.
- Eskatzaileak bere irakaskuntza-jardueraren kalitateari buruz aurkeztutako ebaluazioak.
- Graduondoko unibertsitate-irakaskuntzan izandako esperientzia (prestakuntza-ikastaro espezializatuak, masterrak eta doktoretzak).
- Tesinak, Ikasketa Aurreratuen Diploma, karrera-amaierako proiektuak, gradu-amaierako lanak eta masterrak zuzendu izana.
- Titulazio ofizialetako irakasgaiak edo moduluak koordinatu izana.
- Unibertsitate-orientazio jardunaldietan eta antzekoetan parte hartu izana.
- ISBNdun irakaskuntzako argitalpenak, ospe handiko argialetxeetan argitaratuak

- Irakaskuntza berritzeko proiektuak eta Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitzeko proiektuak koordinatu edo horietan parte hartu izana.
- Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-jarduera (gehienez ere 5 puntu)
- Euskaraz egin diren atal honetako irakaskuntza-jarduerak % 20 gehiago lortuko dute balioespenean.
- Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ez-ofizialetan egiten diren atal honetako irakaskuntza-jarduerak % 10 gehiago lortuko dute balioespenean.

3.2. Lan-esperientzia (gehienez ere, 15 puntu)

- Arloarekin lotutako esperientzia profesionala, beste atal batzuetan ez balioestekoa, lizentzia fiskal edo lan-kontratu bidez egiaztatua. Batzorde ebaluatzaileak ebatziko du arloko espezifikoa ote den, puntuazioan aintzat hartu ahal izateko
- Arlo klinikoetan, jarduera asistentziala hartuko da kontuan bereziki, irudi honekiko antzintasun eta kompetentzien irizpidekin bat datorrela.
- Ekintzailletza-jardueretan parte hartzea, unibertsitateko spin-off edo start-up enpresen sorkuntzan adibidez.

4. KUDEAKETA JARDUERAK (gehienez ere, 5 puntu)

Unibertsitateetan pertsona bakarreko kudeaketa-karguak betetzea, unibertsitateetako erakunde-batzordeetako parte-hartzea eta Administrazio Publikoaren zerbitzuak balioetsiko dira (esaterako, konplexutasun administratibo bereziko proiektuak kudeatzea, ospe handiko aldizkarietan argitalpen- eta berrikuspen-lanak egitea eta izen handiko batzorde zientifiko edo akademikoetan parte hartzea).

IKERKETA-IRAKASLEEN KATEGORIAN KONTRATATUTAKO IKERTZAILEEN IRAKASKUNTZA ETA IKERKUNTZA JARDUERA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Egiaztapena lortzeko beharrezkoa da:

- Gutxienez, 90 puntu lortzea, eta, horrez gain, 1. Atalean, 75 puntu eskuratzea.
- Ikerkuntza-jarduerako hiru aldirekin pareka daitezkeen merezimenduak egiaztatzea; aldi horiek irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan egindako zehaztapenen arabera nahiz horri egindako aldaketen arabera aitortuko dira. Baldintza hori ez da nahikoa izango, baina bai ezinbestekoa aldeko egiaztapena lortzeko.
- Gutxienez, hiru doktorego-tesi zuzenduta izatea; gutxienez, hiru ikerkuntza-proiekturen ikertzaile nagusi izatea; urtebetez, atzerriko unibertsitate batean doktoratu ondoko egonaldia egina izatea; edo kanpo-kontratuak lortzeko itzelezko gaitasuna duela egiaztatzea. Baldintza hori ez da nahikoa izango, baina bai ezinbestekoa aldeko egiaztapena lortzeko.

ATALAK	ATAL BAKOITZETIK LOR DAITEKEEN GEHIENENKO PUNTUAZIO	EGIAZTAPENA LORTZEKO PUNTUAZIO MINIMOA
1.- Ikerkuntza jarduera eta ezagutza zabaltzea	90 puntos	75 puntos
2.- Irakaskuntza jarduera eta lan esperientzia	15 puntos	
3.- Kudeaketa jarduerak	5 puntos	
TOTAL		90 puntos

1. IKERKUNTZA JARDUERA ETA EZAGUTZA ZABALTZEA (gehienez ere, 90 puntu)

1.1 Argitalpenak eta patenteak (gehienez, 60 puntu)

Gehinezko puntuazioa ikerkuntza-jarudera lortzeko kalitate nahikoa duten 40 ekarpenekin edo Ikertramo batekin lortuko da. Batzordeak erabakiko du ezagutza eremu bakoitzean estandarizatutako irizpideak kontuan hartuz ekarpenek garrantzi nahikoa duten. 5 Ikerketa-seiurtekorekin, 5 Ikertramorekin edo pareka daitekeen 25 ekarpen egiaztatuz gero, 30 puntu emango dira. Maila altuko 35 ekarpen egiaztatuz gero gutxienez ere 40 puntu emango dira. Ekarpene zientifikoaren kalitatearen balorazio orokorra lehenetsiko da balorazio kuantitatibo hutsaren aurrean. Eskatzailearen lidergo argia egiaztatu beharko da produkzio zientifikoan. Ebaluazio Batzordeak erabakiko du argitalpenak behar bezain garrantzitsuak diren eta lidergoa erakusten duten, jakintza-arlo bakoitzerako irizpide estandarizatuari jarraituz.

1.2. Ikerkuntza eta ezagutza zabaltzeko taldeko jarduerak: proiektuak, kontratuak, eta ikerkuntza-taldeak eta sareak (gehienez ere, 15 puntu)

Eskatzaileak lidergo argia egiaztatu behar du ikertzeko eta ezagutza eskualdatzeko jarduera kolektiboan, batez ere taldeen lidergoari era ikerketa-proiektu lehiakorrei dagokienez.

Azpiatal honetan solilik lortuko da puntuazioa baldin eta eskatzailea garrantzi bereziko nazioarteko edo nazioko bi proiektu lehiakorren ikertzaile nagusia izan bada, jakintza-arloaren arabera, beti ere hauek Europar Batasuneko programa lehiakorren barneko ikerketa-proiektuak, beste nazioarteko erakunde batzuetakoak, (NSF, Fullbright, AEB, Japonia, etabar.) kanpoko ebaluazioa behar duten erakundeek egindakoak badira (kanpo ebaluazio hau bereziki Ikerketarako Nazio Agentziak edo antzeko nazio edo nazioarteko erakundeek egindakoak).

Gehinezko puntuazioa garrantzi handiko ikerketa-proiektuetan egiaztatutako 15 urteko lidergoarekin lortuko da, Europar Batasuneko, bertako edo nazioarteko plangintzetako programa lehiakorren barneko ezagutza arloa aintzat hartuta.

Eskatzailea proiektuen IN ez denean, 2 proiektu aurkeztuko dira gehienez.

Area klinikoaren kasuan gainera, deialdi lehiakorretan ikerketa-jarduera klinikoetan aitzindaritza balioetsiko dira, osasun-autoritate eskudunek egiaztatuta.

Bere kasuan, inpaktu akademiko eta/edo sozial altuarekiko ekitaldi antolaketan aitzindaritza balioetsi ahal izango da.

Hauek balioetsiko dira:

- Lehiaketa-deialdietan lortutako ikerkuntza-proiektuak (deialdi-mota hartuko da kontuan: unibertsitatekoa, erkidegokoa, naziokoa, nazioartekoa) eta finantziarioa.
- Administrazio Publikoarekin edo enprekin egindako ikerkuntza-kontratuak (horiek zientziaren arloan zer garrantzi duten eta horien zenbatekoa hartuko dira aintzat).
- Ikerkuntza-talde eta -sareetan izandako parte-hartze formalizatuak (kontuan izango da deialdi mota etataldeak edo sareak zientziaren arloan duen garrantzia).

Balioespenean kontuan hartuko da hautagaiaren parte-hartze mota: ikertzaile nagusia, proiektuen edo azpiproiektuen koordinatzailea, ikertzailea, bekaduna, etabar.

1.3 Kongresuak (gehienez ere, 5 puntu)

Nazioarteko kongresu zientifikoak hartuko dira kontuan, (eta salbuespen gisa garrantzi bereziko bertako kongresuak, ezagutza arloaren arabera), pareek egindako berraztertzea barru, antzinatearekin eta aldizkakotasunarekin bere ezagutza eremuan erreferentzia bihurtzeko. Kongresu hauei dagokienez hurrengoak balioetsiko dira:

- Osoko hitzaldiak, hitzaldi nagusiak.
- Hitzaldi gonbidatuak.
- Ahozko komunikazioak eta posterrak.
- Kongresu-akten laburpen hedatuak (proceedings).
- Kongresuetan beste aurkezpen batzuk.

Hitzaldi eta mintegiak baloratzeko orduan, aldizkakotasuna, entitate edo batzorde antolatzailearen ospea, eta jarduera jakitera eman den ala ez kontuan hartuko dira.

Nazioarteko garrantzia duten 10 komunikazioarekin gehienezko puntuazioa lortuko da, gutxienez horietako 5 osoko hitzaldiak, hitzaldia gonbidatuak izanik. Ebaluazio-batzordeak ezagutza arloen estandarren arabera ekarpen bakoitzaren garrantzia erabakiko du.

Kongresuetako hitzaldi gonbidatuak edo osoko hitzaldiak balioetsiko dira, nazioartekoak, bereziki.

1.4. Doktoretza-tesien zuzendaritza (gehienez ere, 25 puntu)

Gehienezkoa lortuko da nazioarteko aipamena, gehienezko kalifikazioa eta aparteko saria lortu duten 10 Doktorego Tesiren zuzendaritzarekin edo zuzendarikidetzarekin (gehienez, bi zuzendari).

Tesiak balioesteko, tesien kalifikazioa, sari berezia lortu izana eta nazioarteko tesizat hartu izana hartuko da kontuan.

1.5. Ikerkuntzako beste merezimendu batzuk (gehienez ere, 5 puntu)

Euskal Unibertsitate Sistemaz kanpoko unibertsitateetan edo ikerkuntza-zentroetan irakasle bisitari egon izana.

Doktoratu ondoko beka

Ikerkuntza-jardueragatiko sariak eta ohoreak

Dibulgazio zientifikoko jarduera.

Atzerriko sistemetak ikerketaren egiaztapena.

Ezagutza zabaltze eta eragin sozial handiko hedapen jarduerak.

2. IRAKASKUNTZA-JARDUERA ETA LAN-ESPERIENTZIA (gehienez ere, 15 puntu)

2.1. Irakaskuntza-jarduera (gehienez ere, 15 puntu)

Baliokidetasuna ECTS Kreditu 1= esleitutako 10 irakaskuntza ordu izango da

Graduondoan emandako irakaskuntzan 60 krediturekin edo 20 MAL-en zuzendaritzarekin gehienezkoa lortuko da.

- Hirugarren zikloko edo graduondoko programak zuzendu edo horietan parte hartu izana (prestakuntza berezituko ikastaroak, masterrak eta doktoretzak).
- Tesinak, Ikasketa Aurreratuen Diploma, karrera-amaierako proiektuak, gradu-amaierako lanak eta masterrak zuzendu izana.
- Titulazio ofizialetako irakasgaiak edo moduluak koordinatu izana.
- Unibertsitate-orientazio jardunaldietan eta antzekoetan parte hartu izana
- Irakaskuntza berritzeko proiektuak eta Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitzeko proiektuetan parte hartu izana.
- Ikasleen mugikortasun-programetan parte hartu izana.
- Irakaskuntzako argitalpenak.
- Euskaraz egin diren atal honetako irakaskuntza-jarduerak % 20 gehiago lortuko dute balioespenean.
- Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ez-ofizialetan egiten diren atal honetako irakaskuntza-jarduerak % 10 gehiago lortuko dute balioespenean.

2.2. Lan-esperientzia (gehienez ere, 8 puntu)

- Arloarekin lotutako esperientzia profesionala, beste atal batzuetan ez balioestekoa, lizentzia fiskal edo lan-kontratu bidez egiaztatua. Batzorde ebaluatzaileak ebatziko du arloko espezifikoa ote den, puntuazioan aintzat hartu ahal izateko.
- Arlo klinikoetan, jarduera asistentziala hartuko da kontuan bereziki, irudi honekiko antzinatasun eta kompetentzien irizpidekin bat datorrela.
- Ekintzailtza-jardueretan parte hartzea, unibertsitateko spin-off edo start-up enpresen sorkuntzan adibidez.

3. KUDEAKETA-JARDUERAK (gehienez ere, 5 puntu)

Gehienezko puntuazioa unibertsitateko estatutuetan jasotako unibertsitateko pertsona bakarrek kudeaketa karguetan 4 urtetan zehar jardun izanarekin lortuko da (gutxienez, saileko zuzendari bezala). Gehienezko puntuazio hau Autonomi-erkidegoko administrazioetan, Estatuko Administrazio Orokorrean edo Europar Batasunean heziketa, zientzia edo teknologia arloan 4 urtetan zehar pertsona bakarrek karguetan jardun izanarekin ere lortuko da

Unibertsitateetan pertsona bakarrek kudeaketa-karguak betetzea, unibertsitateko erakunde-batzordeetako parte-hartzea, Administrazio publikoaren zerbitzuak eta ikerkuntza-proiektuen eta –jarduera kudeaketa balioetsiko dira (esaterako, konplexutasun administratibo bereziko proiektuak kudeatzea, ospe handiko aldizkarietan argitalpen- eta berrikuspun-lanak egitea eta izen handiko batzorde zientifiko edo akademikoetan parte hartzea).

DOKTORE IKERTZAILEEN KATEGORIAN KONTRATATUTAKO IKERTZAILEEN IRAKASKUNTZA ETA IKERKUNTZA-JARDUERA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Egiaztapena lortzeko beharrezkoa da:

- Gutxienez, 85 puntu lortzea, eta, horrez gain, 2. atalean, 70 puntu eskuratzea.
- Ikerkuntza-jarduerako bi aldirekin pareka daitezkeen merezimenduak egiaztatzea; aldi horiek irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan egindako zehaztapenen arabera nahiz horri egindako aldaketen arabera aitortuko dira. Baldintza hori ez da nahikoa izango, baina bai ezinbestekoa aldeko egiaztapena lortzeko.
- Lagungarri bezala, merituen estandarizatuagoak dauden atal haietan, gehienezko puntuazioa lortzeko erreferentziak emango dira. Nabarienez, ez dira modu bakarrik, baina bai behar bada ohikoenak. Guzti hau batzordearen ekarpen bakoitzaren balioespenari kalterik egin gabe.

ATALAK	ATAL BAKOITZETIK LOR DAITEKEEN GEHIENEZKO PUNTUAZIO	EGIAZTAPENA LORTZEKO PUNTUAZIO MINIMOA
1.- Ikasketa eta ikerkuntza prestakuntza	10 puntu	
2.- Ikerkuntza-jarduerak eta ezagutza zabaltzea	85 puntu	70 puntu
3.- Irakaskuntza jarduerak eta lan- esperientzia	10 puntu	
4.- Kudeaketa-jarduerak	5 puntu	
GUZTIRA		85 puntu

1. IKASKETA ETA IKERKUNTZA PRESTAKUNTZA (gehienez ere, 10 puntu)

1.1 Unibertsitateko ikasketa-prestakuntza (gehienez ere, 10 puntu)

Atal honetan doktorego-tesiaren kalitate adierazleak, beste titulazio ofizial eta ez ofizial batzuk, doktoratu aurreko sariak eta doktorego-tesiaren aparteko saria, hizkuntzen ezaguera eta dagokion ezagutza eremuko garrantziko espezializazio ikastaroak balioetsiko dira.

Gehienezkoa era honetan lortuko da:

- i) Doktorego-tesia nazioartekoa edo euskaraz bada, gehienezko kalifikazioarekin eta aparteko sariarekin, eta horretaz gain,
- ii) hizkuntza ez ofizial batean maila altua egiaztatzea (B2).

- Doktorego-tesia: sari berezia lortzea eta nazioarteko tesizat hartzea soilik edo Industria Doktoregoa izango dira kontuan. Euskaraz idatzitako eta aurkeztutako tesiak nazioarteko tesien maila berean balioetsiko dira, betiere gehienezko kalifikazioa lortzen badute
- Masterrak edo sei hilabetetik gorako graduondoko ikastaro espezifikoak.
- Unibertsitateko beste titulazio batzuk
- Bere ezagutza-arloko irakasgai espezifiko ez diren hizkuntzak jakitea egiaztatu izana; horien artean sartuko litzateke euskara jakitea. Egiaztatutako maila ere kontuan hartuko da

1.2 Bekak, kontratuak eta ikerkuntza-egonaldiak (gehienez ere, 10 puntu)

Europako, estatuko, autonomietako, unibertsitateko edo beste erakunde batzuetako programetan, lehiakorrek diren deialdietan, lortutako doktoratu aurreko eta doktoratu ondoko beka, diru-laguntzak eta poltsak hartuko dira kontuan.

Medikuntza arloan MIR-a ikerketa kontratu bezala balioetsiko da, baita Euskal Herritik kanpo dauden ospitaletan egonaldiak ere.

Gehienezkoa lortzeko 4 urtetan zehar doktoratu aurreko eta doktoratu ondoko beka/kontratuak izanik (urte bat behintzat doktoratu ondokoa) eta honetaz gain ikasturte baten buruan nazioarteko egonaldia egin bada.

- Doktoratu aurreko eta doktoratu ondoko beka eta kontratuak, ebaluazio-agentzia ezagunek ebaluatuak
- Doktoratu aurretik eta doktoratu ondoren, Euskal Unibertsitate Sistemaz kanpoko unibertsitate-zentroetan edo ikerkuntza-zentroetan egindako egonaldiak.
- Euskal Unibertsitate Sistemaz kanpoko unibertsitateetan edo ikerkuntza-zentroetan irakasle bisitari edo ikertzaile gisa egindako egonaldiak

2. IKERKUNTZA-JARDUERA ETA EZAGUTZA ZABALTZEA (gehienez ere, 85 puntu)

2.1. Argitalpenak eta patenteak (gehienez, 65 puntu)

Gehienezko puntuazioa ikerkuntza-jarduerako 5 aldirekin parekin daitekeen 25 ekarpenekin edo 5 Ikertramoekin lortuko da. Ekarpentzientzifikoen kalitatearen balorazio orokorra lehenetsiko da balorazio kuantitatibo hutsaren aurrean. Eskatzailearen lidergo argia egiaztatu beharko da produkzio zientifikoan. Batzordeak erabakiko du

ezagutza eremu bakoitzean estandarizatutako irizpideak kontuan hartuz ekarpenak parekatzea posiblea diren. Batzordeak erabakiko du ezagutza eremu bakoitzean estandarizatutako irizpideak kontuan hartuz ekarpenak parekatzea posiblea diren.

3 Ikerketa-seiurtekorekin, 3 Ikertramorekin edo pareka daitekeen 15 ekarpen egiaztatuz gero, 40 puntu emango dira. Ekarpentzako zientifikoen kalitatearen balorazio orokorra lehenetsiko da balorazio kuantitatibo hutsaren aurrean. Eskatzailearen lidergo argia egiaztatu beharko da produkzio zientifikoan. Batzordeak erabakiko du ezagutza eremu bakoitzean estandarizatutako irizpideak kontuan hartuz ekarpenak parekatzea posiblea diren.

2.2. Ikerkuntzako eta ezagutza zabaltzeko taldeko jarduerak: proiektuak, kontratuak, eta ikerkuntza-taldeak eta sareak (gehienez ere, 15 puntu)

Kontuan hartuko dira bereziki eskatzailearen parte-hartze mota eta erantzukizun maila hurrengo programetan: Europar Batasuneko programa lehiakorren barneko ikerketa-proiektuetan, beste nazioarteko erakunde batzuetakoetan, (NSF, Fullbright, AEB, Japonia, etabar.), Plan Nazionalekoetan, Autonomia-Erkidegokoetan eta kanpoko ebaluazioa behar duten (kanpo ebaluazio hau bereziki Estatuko Ikerketa Agentzia edo antzeko garrantzi bereziko nazio edo nazioarteko erakunde publiko edo pribatuak egin badute).

Area klinikoaren kasuan gainera, deialdi lehiakorretan ikerketa-jardura klinikoak balioetsiko dira, osasun-autoritate eskudunek egiaztatuta.

Gehienezkoa lortzeko gutxienez 6 urtez Europar Batasuneko programa lehiakorren barneko ikerketa-proiektuetan, bertako edo nazioarteko Plangintzetan ikertzaile nagusia izatea egiaztatu beharko da.

Hauek balioetsiko dira:

- Lehiaketa-deialdietan lortutako ikerkuntza-proiektuak (deialdi-mota hartuko da kontuan: unibertsitatekoa, erkidegokoa, nazioartekoa).
- Administrazio Publikoarekin edo enpresekin egindako ikerkuntza-kontratuak (horiek zientziaren arloan zer garrantzi duten eta horien zenbatekoa hartuko dira aintzat).
- Ikerkuntza-talde eta -sareetan izandako parte-hartze formalizatuak (kontuan izango da deialdi mota eta taldeak edo sareak zientziaren arloan duen garrantzia).

Balioespenean kontuan hartuko da hautagaiaren parte-hartze mota: ikertzaile nagusia, proiektuen edo azpiproiektuen koordinatzailea, ikertzailea, bekaduna, etabar.

Zientzia-dibulgazioko jarduerak ere balioetsiko dira (esaterako, publiko orokorrari irekitako mintegietan, zientziaren asteetan eta antzekoetan parte hartzea).

2.3. Kongresuak (gehienez ere, 5 puntu)

Nazioarteko kongresu zientifikoak hartuko dira kontuan, (eta salbuespen gisa garrantzi bereziko bertako kongresuak, ezagutza arloaren arabera), pareek egindako berraztertzea barru, antzinatearekin eta aldizkakotasunarekin bere ezagutza eremuan erreferentzia bihurtzeko. Kongresu hauei dagokienez hurrengoak balioetsiko dira:

- Osoko hitzaldiak.
- Hitzaldi gonbidatuak.
- Ahozko komunikazioak eta posterrak.
- Kongresu-akten laburpen hedatuak (proceedings).
- Kongresuetan beste aurkezpen batzuk.

	<p>Hitzaldi eta mintegiak baloratzeko orduan, aldizkakotasuna, entitate edo batzorde antolatzailearen ospea, eta jarduera jakitera eman den ala ez kontuan hartuko dira.</p> <p>Nazioarteko garrantzia duten 10 komunikazioarekin gehienezko puntuazioa lortuko da, horietako gutxienez 2 hitzaldi gonbidatuak izanik (salbuespen gisa, garrantzizko nazionalak ezagutza arloaren arabera). Ebaluazio-batzordeak ezagutza arloen estandarren arabera ekarpen bakoitzaren garrantzia erabakiko du.</p>
	<p>Kongresuetako hitzaldi gonbidatuak, osoko hitzaldiak, ahozko komunikazioak edo posterrak balioetsiko dira, nazioartekoak nagusiki.</p>
<p>2.4. Doktoretza-tesien zuzendaritza (gehienez ere, 20 puntu)</p> <p>Gehienezkoa lortuko da nazioarteko aipamena, gehienezko kalifikazioa eta aparteko saria lortu duten 4 Doktorego Tesiren zuzendaritzarekin edo zuzendarikidetzarekin (gehienez, bi zuzendari).</p>	
	<p>Tesiak balioesteko, tesien kalifikazioa, sari berezia lortu izana eta nazioarteko tesizat hartu izana hartuko da kontuan.</p>

3. IRAKASKUNTA JARDUERA ETA LAN ESPERIENTZIA (gehienez ere, 10 puntu)

3.1. Unibertsitateko irakaskuntza-jarduera (gehienez ere, 10 puntu)

Baliokidetasuna ECTS Kreditu 1 = esleitutako 10 irakaskuntza ordu izango dira

Gehienezkoa graduondoko irakaskuntzan emandako 30 krediturekin edo 10 MAL-en zuzendaritzarekin lortuko da.

- Unibertsitateko ikaskuntza-esperientzia, erakundearen aldeko balioespenarekin
- Eskatzaileak bere irakaskuntza-jardueraren kalitateari buruz aurkeztutako ebaluazioak.
- Graduondoko unibertsitate-irakaskuntzan izandako esperientzia (prestakuntza-ikastaro espezializatuak, masterrak eta doktoretzak).
- Tesinak, Ikasketa Aurreratuen Diploma, karrera-amaierako proiektuak, gradu-amaierako lanak eta masterrak zuzendu izana.
- Titulazio ofizialetako irakasgaiak edo moduluak koordinatu izana.
- Unibertsitate-orientazio jardunaldietan eta antzekoetan parte hartu izana
- ISBNdun irakaskuntzako argitalpenak, ospe handiko argitaletxeetan argitaratuak
- Irakaskuntza berritzeko proiektuak eta Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitzeko proiektuetan parte hartu izana
- Ikasleen mugikortasun-programetan parte hartu izana.
- Euskaraz egin diren atal honetako irakaskuntza-jarduerak % 20 gehiago lortuko dute balioespenean
- Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ez-ofizialetan egiten diren atal honetako irakaskuntza-jarduerak % 10 gehiago lortuko dute balioespenean.

3.2. Lan-esperientzia (gehienez ere, 5 puntu)

- Arloarekin lotutako esperientzia profesionala, beste atal batzuetan ez balioestekoa, lizentzia fiskal edo lan-kontratu bidez egiaztatua. Batzorde ebaluatzaileak ebatziko du arloko espezifikoa ote den, puntuazioan aintzat hartu ahal izateko.

Arlo klinikoetan, jarduera asistentziala hartuko da kontuan bereziki, irudi honekiko antzinasun eta kompetenzien irizpidekin bat datorrela.

- Ekintzailtza-jardueretan parte hartzea, unibertsitateko spin-off edo start-up enpresen sorkuntzan adibidez:

4. KUDEAKETA JARDUERAK (gehienez ere, 5 puntu)

Unibertsitateetan pertsona bakarreko kudeaketa-karguak betetzea, unibertsitateetako erakunde-batzordeetako parte-hartzea, Administrazio Publikoaren zerbitzuak eta ikerkuntza-proiektuen eta -jardueren kudeaketa balioetsiko dira (esaterako, konplexutasun administratibo bereziko proiektuak kudeatzea, ospe handiko aldizkarietan argitalpen- eta berrikuspen-lanak egitea eta izen handiko batzorde zientifiko edo akademikoetan parte hartzea).

DOKTORE-TITULUA DUTEN UNIBERTSITATE PRIBATUETAKO IRAKASLEEN IRAKASKUNTZA ETA IKERKUNTZA-JARDUERA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Egiaztapena lortzeko, gutxienez, 60 puntu lortu behar dira; horrez gain, 2. atalean 25 puntu eskuratu behar dira, eta, 3. atalean, 20 puntu.

- Lagungarri bezala, merituak estandarizatuagoak dauden atal haietan, gehienezko puntuazioa lortzeko erreferentziak emango dira. Nabari denez, ez dira modu bakarrak, baina bai beharbada ohikoenak. Guzti hau batzordearen ekarpen bakoitzaren balioespenari kalterik egin gabe.

ATALAK	ATAL BAKOITZETIK LOR DAITEKEEN GEHIENENKO PUNTUAZIO	EGIAZTAPENA LORTZEKO PUNTUAZIO MINIMOA
1.- Ikasketa eta ikerkuntza prestakuntza	15 puntu	
2.- Ikerkuntza-jarduera eta ezagutza zabaltzea	60 puntu	25 puntu
3.- Irakaskuntza jarduera eta lan- esperientzia	30 puntu	20 puntu
4.- Kudeaketa jarduerak	5 puntu	
GUZTIRA		60 puntu

1. IKASKETA ETA IKERKUNTZA PRESTAKUNTZA (gehienez ere, 15 puntu)

1.1 Unibertsitateko ikasketa-prestakuntza (gehienez ere, 10 puntu)

Atal honetan doktorego-tesiaren kalitate adierazleak, beste titulazio ofizial eta ez ofizial batzuk, doktoratu aurreko sariak eta doktorego-tesiaren aparteko saria, hizkuntzen ezaguera eta dagokion ezagutza eremuko garrantziko espezializazio ikastaroak balioetsiko dira.

Gehienezkoa era honetan lortuko da:

- i) Doktorego-tesia nazioartekoa edo euskaraz bada, gehienezko kalifikazioarekin eta aparteko sariarekin, eta horretaz gain,
- ii) hizkuntza ez ofizial batean maila altua egiaztatzea (B2).

- Ikasketa-espeditentea.
- Doktorego-tesia: sari berezia lortzea eta nazioarteko tesizat hartzea soilik edo Industria Doktoregoa izango dira kontuan. Euskaraz idatzitako eta aurkeztutako tesiak nazioarteko tesien maila berean balioetsiko dira, betiere gehienezko kalifikazioa lortzen badute.
- Masterrak edo sei hilabetetik gorako graduondoko ikastaro espezifikoak.
- Unibertsitateko beste titulazio batzuk.
- Bere ezagutza-arloko irakasgai espezifiko ez diren hizkuntzak jakitea egiaztatu izana; horien artean sartuko litzateke euskara jakitea. Egiaztatutako maila ere kontuan hartuko da.

1.2. Bekak, kontratuak eta ikerkuntza-egonaldiak (gehienez ere, 10 puntu)

Europako, estatuko, autonomietako, unibertsitateko edo beste erakunde batzuetako programetan, lehiakorrek diren deialdietan, lortutako doktoratu aurreko eta doktoratu ondoko beka, diru-laguntzak eta poltsak hartuko dira kontuan.

Medikuntza arloan MIR-a ikerketa kontratu bezala balioetsiko da, baita Euskal Herritik kanpo dauden ospitaletan egonaldiak ere.

Gehienezkoa lortzeko 4 urtetan zehar doktoratu aurreko eta doktoratu ondoko beka/kontratuak izanik (urte bat behintzat doktoratu ondokoa) eta honetaz gain ikasturte baten buruan nazioarteko egonaldia egin bada.

- Doktoratu aurreko eta doktoratu ondoko beka eta kontratuak, ebaluazio-agentzia ezagunek ebaluatuak
- Doktoratu aurretik eta doktoratu ondoren, Euskal Unibertsitate Sistemaz kanpoko unibertsitate-zentroetan edo ikerkuntza-zentroetan egindako egonaldiak.
- Euskal Unibertsitate Sistemaz kanpoko unibertsitateetan edo ikerkuntza-zentroetan irakasle bisitari edo ikertzaile gisa egindako egonaldiak

2. IKERKUNTZA-JARDUERA ETA EZAGUTZA ZABALTZEA (gehienez ere, 60 puntu)

2.1. Argitalpenak eta ikerkuntza zabaltzea (gehienez ere, 45 puntu)

Gehienezkoa lortuko da, erreferentzia gisa, 2 ikerketa seiurteko edo 2 Ikertramo lortzeko beharrezkoa den produkzio zientifikoarekin. Ekarpen zientifikoaren kalitatearen balorazio orokorra lehenetsiko da balorazio

kuantitatibo hutsaren aurrean. Eskatzailearen lidergo argia egiaztatu beharko da produkzio zientifikoan. Batzordeak erabakiko du ezagutza eremu bakoitzean estandarizatutako irizpideak kontuan hartuz ekarpenek garrantzi nahikoa duten.

Erreferentzia gisa Ikerketa- seiurteko batekin, Ikertramo batekin edo pareka daitekeen ekarpenekin egiaztatuz gero, 30 puntu emango dira. Ekarpene zientifikoaren balorazio orokorra lehenetsiko da balorazio kuantitatibo hutsaren aurrean. Eskatzailearen lidergo argia egiaztatu beharko da produkzio zientifikoan. Batzordeak erabakiko du ezagutza eremu bakoitzean estandarizatutako irizpideak kontuan hartuz ekarpenak parekatzea posiblea diren.

2.2. Ikerkuntzako eta ezagutza zabaltzeko taldeko jarduerak: proiektuak, kontratuak, eta ikerkuntza-taldeak eta -sareak (gehienez ere, 15 puntu)

Kontuan hartuko dira bereziki eskatzailearen parte-hartze mota eta erantzukizun maila hurrengo programetan: Europar Batasuneko programa lehiakorren barneko ikerketa-proiektuetan, beste nazioarteko erakunde batzuetakoetan, (NSF, Fullbright, AEB, Japonia, etabar.), Plan Nazionalekoetan, Autonomia-Erkidegokoetan eta kanpoko ebaluazioa behar duten (bereziki, kanpo ebaluazio hori Estatuko Ikerketa Agentziak edo estatuko zein nazioarteko antzeko erakunde publiko edo pribatuek egin badute).

Area klinikoaren kasuan gainera, deialdi lehiakorretan ikerketa-jarduera klinikoak balioetsiko dira, osasun- autoritate eskudunek egiaztatuta.

Gehienezkoak lortzeko 4 urtez Europar Batasuneko programa lehiakorren barneko ikerketa-proiektuetan, bertako edo nazioarteko plangintzetan parte-hartzea egiaztatu beharko da, eta honez gain gutxienez urtebeteko iraupena duen proiektu lehiakor baten ikertzaile nagusia izatea.

Hauek balioetsiko dira:

- Lehiaketa-deialdietan lortutako ikerkuntza-proiektuak (deialdi-mota hartuko da kontuan: unibertsitatekoa, erkidegokoa, naziokoa, nazioartekoa).
- Administrazio Publikoarekin edo enpresekin egindako ikerkuntza-kontratuak (horiek zientziaren arloan zer garrantzi duten eta horien zenbatekoa hartuko dira aintzat).
- Ikerkuntza-talde eta -sareetan izandako parte-hartze formalizatuak (kontuan izango da deialdi mota eta taldeak edo sareak zientziaren arloan duen garrantzia)

Balioespenean kontuan hartuko da hautagaiaren parte-hartze mota: ikertzaile nagusia, proiektuen edo azpiproiektuen koordinatzailea, ikertzailea, bekaduna, Etab.

Zientzia-dibulgazioko jarduerak ere balioetsiko dira (esaterako, publiko orokorrari irekitako mintegietan, zientziaren asteetan eta antzekoetan parte hartzea).

2.3. Kongresuak (gehienez ere, 5 puntu)

Nazioarteko kongresu zientifikoak hartuko dira kontuan, (eta salbuespen gisa garrantzi bereziko bertako kongresuak, ezagutza arloaren arabera), pareek egindako berraztertzea barru, antzinatearekin eta aldizkakotasunarekin bere ezagutza eremuan erreferentzia bihurtzeko. Kongresu hauei dagokienez hurrengoak balioetsiko dira:

- Osoko hitzaldiak.
- Hitzaldi gonbidatuak.

- Ahozko komunikazioak eta posterrak.
- Kongresu-akten laburpen hedatuak (proceedings).
- Kongresuetan beste aurkezpen batzuk.

Hitzaldi eta mintegiak baloratzeko orduan, aldizkakotasuna, entitate edo batzorde antolatzailearen ospea, eta jarduera jakitera eman den ala ez kontuan hartuko dira.

Nazioarteko 5 kongresutan parte hartuz gehienezko puntuazioa lortuko da, gutxienez horietako 1 hitzaldi gonbidatua izanik (salbuespen gisa, garrantzizko nazionalak ere kontuan hartuko dira, ezagutza arloaren arabera). Ebaluazio-batzordeak ezagutza arloen estandarren arabera ekarpen bakoitzaren garrantzia erabakiko du.

Kongresuetako hitzaldi gonbidatuak, osoko hitzaldiak, ahozko komunikazioak edo posterrak balioetsiko dira, nazioartekoak, bereziki.

2.4. Doktoretza-tesien zuzendaritza (gehienez ere, 10 puntu)

Gehienezkoa lortuko da nazioarteko aipamena, gehienezko kalifikazioa eta aparteko saria lortu duten 2 Doktorego Tesiren zuzendaritzarekin edo zuzendarikidetzarekin (gehienez, bi zuzendari).

Tesiak balioesteko, tesien kalifikazioa, sari berezia lortu izana eta nazioarteko tesizat hartu izana hartuko da kontuan.

3. IRAKASKUNTZA JARDUERA ETA LAN ESPERIENTZIA (gehienez ere, 30 puntu)

3.1 Irakaskuntza jarduera (gehienez ere, 30 puntu)

Baliokidetasuna ECTS Kreditu 1 = esleitutako 10 irakaskuntza ordu izango dira

3 ataletan banatzen da:

- i) Gradu/Master/Doktoregoan emandako irakaskuntza, gehienez 15 puntu.
- ii) GrAL eta MAL-en zuzendaritza, gehienez 5 puntu.
- iii) Irakaskuntzaren kalitatea egiaztatzea (jarduerako eta irakaskuntzan prestakuntzako ebaluazio positiboak), gehienez 10 puntu.

Gehienezkoa i)-an emandako eta egiaztatutako 50 krediturekin lortuko da

Gehienezkoa ii)-an 10 GrAL edo 5 MAL-en zuzendaritzarekin lortuko da.

Gehienezkoa iii)-an bost urtetako irakaskuntza jarduera bikaina ebaluazioarekin (erreferentzia, Docentia programa izanik) lortuko da. Honen faltan, ikasleen asetze inkestak (betiere, inkesta hauek gutxienez emandako kredituen %50ari badagozkio eta batazbestekoa 5etatik 3,5 (edo 10etatik 7) bada) aurkeztuz ere lortu daiteke. Aurrekoaz gain, irakaskuntza berrikuntzan prestakuntza jaso behar izan da eta honek era zuzenean eta egiaztatuan nolabaiteko eragina emandako irakaskuntzan izan behar izan du.

- Unibertsitateko ikaskuntza-esperientzia, erakundearen aldeko balioespenarekin.
- Eskatzaileak bere irakaskuntza-jardueraren kalitateari buruz aurkeztutako ebaluazioak
- Graduondoko unibertsitate-irakaskuntzan izandako esperientzia (prestakuntza-ikastaro espezializatuak, masterrak eta doktoretzak

- Tesinak, Ikasketa Aurreratuen Diploma, karrera-amaierako proiektuak, gradu-amaierako lanak eta masterrak zuzendu izana
- Titulazio ofizialetako irakasgaiak edo moduluak koordinatu izana.
- Unibertsitate-orientazio jardunaldietan eta antzekoetan parte hartu izana
- ISBNdun irakaskuntzako argitalpenak, ospe handiko argitaletxeetan argitaratuak.
- Irakaskuntza berritzeko proiektuak eta Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitzeko proiektuak koordinatu edo horietan parte hartu izana.
- Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-jarduera. (gehienez ere 5 puntu).
- Euskaraz egin diren atal honetako irakaskuntza-jarduerak % 20 gehiago lortuko dute balioespenean.
- Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ez-ofizialetan egiten diren atal honetako irakaskuntza-jarduerak % 10 gehiago lortuko dute balioespenean.

3.2. Lan esperientzia (gehienez ere, 15 puntu)

- Arloarekin lotutako esperientzia profesionala, beste atal batzuetan ez balioestekoa, lizentzia fiskal edo lan-kontratu bidez egiaztatua. Batzorde ebaluatzaileak ebatziko du arloko espezifikoa ote den, puntuazioan aintzat hartu ahal izateko.

Arlo klinikoetan, jarduera asistentziala hartuko da kontuan bereziki, irudi honekiko antzinatasun eta kompetentzien irizpidekin bat datorrela.

- Ekintzailtza-jardueretan parte hartzea, unibertsitateko spin-off edo start-up enpresen sorkuntzan adibidez:

4. KUDEAKETA JARDUERAK (gehienez ere, 5 puntu)

Unibertsitateetan pertsona bakarreko kudeaketa-karguak betetzea, unibertsitateetako erakunde-batzordeetako parte-hartzea eta Administrazio Publikoaren zerbitzuak balioetsiko dira (esaterako, konplexutasun administratibo bereziko proiektuak kudeatzea, ospe handiko aldizkarietan argitalpen- eta berrikuspen-lanak egitea eta izen handiko batzorde zientifiko edo akademikoetan parte hartzea).

Ebazpen honek-Unibasqeko zuzendariaren 2022ko azaroaren 15eko ebazpena indargabetzen du.

Gasteizen, 2023ko abenduaren 14an

Unibasqeko zuzendaria,

IÑAKI HERAS SAIZARBITORIA

ERANSKINA

Ebaluazio-batzordeek argitalpen-moten sailkapen bat egingo dute, erantsitako irizpideak oinarri hartuta. Sailkapen horretan, hainbat ezagutza-esparrutako kalitate handiko ekarpenak zein diren zehaztuko da.

ZIENTZIA ESPERIMENTALAK ETA OSASUN ZIENTZIAK

Zientzia Esperimentalen eta **Osasun Zientzien** arloan, Science Citation Index datu-basean jasotako argitalpen zientifikoak balioetsiko dira, gehienbat. Bestelako lanak ere kontuan har daitezke, haien arloan kalitate handiko argitalpenei badagozkie; hots, Science Citation Index datu-basean, dagokien espezialitateko zerrendaren lehenengo herenean dauden aldizkariak. Bestalde, ikerkuntzaren eraginkortasun-maila kontuan izango da, eragin-indizea eta jasotako aipu-kopurua ikerkuntzak izan duen eraginaren adierazletzat hartuz, hain zuzen. Liburuak argitaratzeari dagokionez, nazioartean ospea duten argialetxe espezializatuek argitaratutako jatorrizko ikerkuntza-liburuak bereziki balioetsiko dira.

IRAKASKUNTZA TEKNIKOAK

Irakaskuntza Teknikoen arloan, patenteak eta argitalpen zientifikoak **balioetsiko dira**. Science Citation Index datu-basean jasotako argitalpen zientifikoak lehenetsiko dira balioestean. Bestelako lanak ere kontuan har daitezke, haien arloan kalitate handiko argitalpenei badagozkie; hots, Science Citation Index datu-basean, dagokien espezialitateko zerrendaren lehenengo herenean dauden aldizkariak. Horrez gain, ingeniartzako nazioarteko datu-baseetan jasotako aldizkarietan argitaratutako artikulak ere balioetsiko dira (adibidez, honako hauetan: TRIS Electronic Bibliography data, Internacional Development Abstracts, International Civil Engineering Abstracts, Environmental Abstracts, Applied Mechanical Reviews, Applied Science and Technology Index), bai eta arkitekturako argitalpenen nazioarteko indizeetan agertzen direnak ere (adibidez, hauetan: Arts and Humanities Citation Index, Avery Index to Architectural Periodicals). Bestalde, ikerkuntzaren eraginkortasun-maila kontuan izango da, eragin-indizea eta jasotako aipu-kopurua ikerkuntzak izan duen eraginaren adierazletzat hartuz, hain zuzen. Salbuespen gisa, atal honetan balioetsi daitezke ospe handiko nazioarteko kongresuen aktetan jasotako lanak, kongresu horiek ospe handieneko Journal Citation Report aldizkariaren pareko hedapen-bide diren zientzia-arloetan, baldin eta hautaketa-irizpideek aldizkari horien antzeko zorrotasun-maila badute. Ustiapenean dauden patenteak balioetsiko dira; ustiapena salerosketa-kontratuaren edo lizentzia-kontratuaren bidez frogatu beharko da. Patentearen hedapen-maila aintzat hartuko da (naziokoa, Europakoa edo Patenteen Arloko Kooperazio Itunaren araberkoa); eta babes handiena duena balioetsiko da gehien. Horrez gain, ekarpena ontzat emango da, patentea Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoak eman badu, aurretiko azterketa-sistemaren bidez.

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZIENTZIA JURIDIKOAK

Gizarte Zientzien arloan, hainbat datu-basetan (Sciences Citation Index, Social Sciences Citation Index, Econlit, IN-RECS, IN-RECJ, RESH) edo arlo horretan oro har onartutako beste datu-base batzuetan sartzen diren ospe handiko aldizkarietan egindako argitalpen zientifikoak balioetsiko dira, batez ere. Dena den, horiez gain, indexatu gabeko aldizkariak ere aintzat hartu ahal izango dira, Batzordeak beharrezko jotzen dituen kalitate-baldintzak betetzen dituztenak, ospe handia eta ikaskuntzan nahiz lan-munduan hedapen zabala dutenak, eta LATINDEX edo DICE katalogoetan sartuta daudenak; horietan, kontuan hartu behar da zer irizpide mota eta zenbat betetzen dituzten. Bestalde, ikerkuntzaren eraginkortasun-maila kontuan izango da, eragin-indizea eta jasotako aipu-kopurua ikerkuntzak izan duen eraginaren adierazletzat hartuz, hain zuzen. Zuzenbide-arloetan ere, kalitate-adierazgarriak egiaztatzen diren liburuak eta liburuko kapituluak hartuko dira kontuan (argialetxearen kanpo-ebaluazioa, argitalpen-inpaktua).

GIZA ZIENTZIAK

Giza Zientzien arloan, batez ere, kalitate-indizeak (argialetxearen kanpo-ebaluazioa, argitalpen-inpaktua) egiaztatzen diren liburuak eta nazioarteko aldizkarietan argitaratutako artikulak balioetsiko dira; hau da, horiek datu-base hauetan sartzea kalitatezko erreferentziatzat hartuko da: FRANCIS, International Bibliography of the

Social Sciences, Arts and Humanities Citation Index, Social Science Citation Index, CINDOC, Bibliography of the History of Arts (RLG), Historical Abstracts, International Medieval Bibliography, Index Islamicus, RILMS Abstracts of Music Literature, Philosopher's Index, Répertoire Bibliographique, International Bibliography of Periodical Literature in Humanities and Social Sciences (IBZ), Bibliographie Linguistique/Linguistic Bibliography (BL), eta Library and Information Science Abstracts. Datu-base horietan sartzen ez diren aldizkarietara dagokienez, kalitate-adierazletzat hartuko dira honako ezaugarri hauek: parekako kanpo-ebaluazioak izatea; nazioarteko batzorde zientifiko bat izatea; erredakzio-batzordearen edo argitaletxearen bitartez aldizkariarekin lotura zuzenik ez duten egileek idatzitako artikuluen ehuneko altu bat argitaratzea; maiztasuna eta hiru urtetik gorako antzinatasuna; ikerkuntzalanak soilik argitaratzea; dagokion espezialitatearekin lotura gehien duten katalogoetan eta bibliografia-buletinetan aipatuta agertzea; eta lanak hizkuntza batean baino gehiagotan argitaratzea. Bestalde, ikerkuntzaren eraginkortasun-maila kontuan izango da, eragin-indizea eta jasotako aipu-kopurua ikerkuntzak izan duen eraginaren adierazletzat hartuz, hain zuzen. Arte Ederren arloan, erakusketen antolakuntza eta erakusketen katalogoak balioetsiko dira.